

# 1

## GIDA DIDAKTIKOA:

### **UNIBERTSOAREN SORRERA EGIPTOARREN, BABILONIARREN ETA INDIARREN ARABERA**

#### AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	4. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	24. or.
Bibliografia	33. or.
Egileak	34. or.

## Kapitulu honetako helburuak eta edukiak

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzekeak, bai ezagutzak eraikitzekeak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea: zientziari buruzko azalpen laburrak.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Testu baten lerroaldean esanahia ulertzea eta beren hitzekin adieraztea. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Unibertsoaren sorrerari buruzko hipotesien informazioa identifikatzea eta interpretatzea. Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.


	<b>Etapako helburuak</b>	<b>2. zikloko edukiak</b>
Hizkuntzaren gaineko hausnartzea	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ikasgelan edo ikastetxean azalpen txikiak ahoz ematen hasia. Ikasgelan lantzen diren testu generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatuz: hasierako agurra, gai-ordena, garapena eta bukaerako agurra. Testu-transformazioak egitea: beren hitzekin adieraztea. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan.
	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazio-unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzea: hitz batzuek, minuskulaz edo maiuskulaz idaztean, esanahi-aldaketa dutela ohartaraztea.
Hizkuntzen dimentsio soziala	Hizkuntza guztiak komunikazio-tresna eraginkortzat jotzea eta hizkuntza-aniztasuna balioestea.	L1 euskara dutenek euskara ikasten ari direnekin laguntzeko jarrera garatzea. L1 euskara ez denean, euskaraz komunikatzeko konfiantza eta ekimena izatea.

### **JARDUERA FUNTZIONALA:**


**Beste ikasgelako ikaskideei unibertsoaren sorrerari buruzko azalpena ahoz ematea.**

# UNIBERTSOA: 3 azalpen ezberdin

1



Materia guztia puntu batean elkartu zen, eta berotu egin zen.



Berotzearen ondorioz, lehertu egin zen.



Leherketaren ondorioz, materia zabaltzen hasi zen.



Gero eta gehiago zabaldu zen.



Izar talde erraldoiak sortu ziren (galaxiak, alegia).



Planetak sortu ziren.




Gure eguzki-sistema ere sortu zen.


Zer gertatuko da?

2

Etengabe zabaltzen jarraituko du, ala uzkurtuko egingo da?




Zuk zer uste duzu?



Ala beti existitu da, eta leherketak etengabe ari dira gertatzen?

3



## ZEURE AZALPENA PRESTATZEKO:

### 1. Informazioa lortu behar duzu.

Liburuetan eta Interneten begira dezakezu, edota laguntza eska diezaiekezu beste ikasle nagusiei, irakasleari eta zeure gurasoei.



**1. Informazioa ulertzen:  
Irakurri taldean, eta lagundu elkarri ulertzen.**

**Konturatu bazarete, hitz batzuk beltzago daude. Jakingo zenukete esaten zer esan nahi duten?**

TESTUA	Adieraz ezazue ulertu duzuen <b>zeuen hitzekin.</b>
<i>Unibertsoa edo <b>kosmosa</b> oraindik oso gutxi ezagutzen dugu.</i>	
<i>Zalantza asko daude. Badira azalpen batzuk, baina oraindik erabat frogatu gabeak. Hau da, <b>hipotesiak</b> dira.</i>	
<i>...Batzuen ustez, Unibertsoa <b>hor</b> sortu zen.</i>	
<i>Beste batzuen iritziz, <b>hori</b> amaigabeko prozesu bat da...</i>	
<i>Unibertsoa ez dela inoiz sortu, betidanik existitu dela, <b>bertan</b> eztanda asko izan direla eta jarraituko dutela izaten.</i>	
<i>Argi dago gure galaxia eztanda baten ondorioz sortua zela, eta <b>berarekin</b> inguruan ditugunak.</i>	
<i>Argi dago gure galaxia eztanda baten ondorioz sortua zela, eta berarekin inguruan ditugunak.</i>	
<i>... Beste batzuen arabera, <b>aldiz</b>, Unibertsoa berriro uzkurtuko da eta, ondoren, berriro eztanda egingo du.</i>	

OHARRA. Honako hau irakasleak egin dezakeen azalpena da. Ikasleen arreta honako alderdi hauetara zuzenduko du: GAIA MANTENTZEA LORTZEKO BALIABIDEAK > izenen kohesioa.

Testu batean gaia oroimenean mantentzeko baliabideak identifikatuko ditu irakasleak, eta beste batzuk erabiltzea proposatuko die ikasleei. Testua Unibertsoaren deskribapen zientifikoa izango da, eta, horrela, informazioa ulertzen lagunduko die.

1.1. Aurreko testuan Unibertso hitza askotan agertu da. Ordezka daiteke, baina zein hitz/esapide jar daiteke UNIBERTSO hitzaren ordez?

Irakasleak honako hauek aztertuko ditu eta bere aukeraketaren/bazterketaren zergatia azalduko du: ortzia, izartegia, zerua, dena, existitzen den guztia, kaosa, gaia, ostondoa, izarrartea, mundua, hutsartea (sinonimoak, hiperonimoak, erlatibozko esaldiak).

1.2. Anaforak: Zein da “HOR”, “HORI” hitzen erreferentea? Zailtasun berezia dute; izan ere, ez dute erreferente zehatzik, baizik eta ideia bat errekuperatzen dute:

Duela 15 bat milioi urte gertatu zen eztanda.

Proposatu “hor” ordezkatzeko baliabideak: eztanda hartan, hasierako eztandan, une hartan...

Proposatu “hori” ordezkatzeko baliabideak: eztanda hura, gertakari hura.

Aztertu honako hauek:

Danbada, danbateko, danbadako, leherketa, zapart, durunda, klaskada, lehertzapen.

Gertaera, gertapen, gertakizun, gertaldi, gertatu, jazoera, jazo, kasu, fenomeno.




1.3. Anafora: “BERAREKIN”. Kasu honetan, erreferentea hurbil dago: gure galaxia.

*Ordezkatzeko proposa daitekeena: izar talde erraldoia, izar multzo erraldoia. Aztertu beste hauek: mordo, saldo, samalda, andana, sail, aldra, alderdi, aralde, selekzio.*



2. Ekarri ideiak burura, eta idatzi paperean:

# Gaiak



unibertsoa  
Nolako da?  
Big-Banga zer da?  
Izarrak



**3. Aukeratu ideiak. Adibidez, ezabatu harira ez datozen ideiak.**

Hona hemen zure azalpenean ager daitezkeen gaiak eta harira ez datozenak. Ezaba itzazu harira ez datozenak.

OHARRA: Ariketa honetan ez dago erantzun bakarra. Ikasleak jakingo du nola enfokatu nahi duen. Agian, Star War filmetik abiatu nahi da, edo espazio-ontziak abiapuntutzat har daitezke.

*Unibertsoa*

*Ikerketak*

*Galaxiak*

*Sinesmenak*

*Jostailuak*

*Kondairak*

~~*Ipar Poloa*~~

*Hodeiak*

***Amaigabea***

*Espazio-ontziak*

*Filmetako aktoreak*

*Planetak*

*Galaxiak*

*Izarrak*

*Jedi zaldunak*

**4. Ordenatu ideiak:**

Demagun zeure azalpenean honako gai hauek aipatu nahi dituzula. Ordena itzazu paperean, eta gero azalpena emateko erabil dezakezu gida moduan.

*Unibertsoa*      *Ikerketak*

*Galaxiak*

*Kondairak*

*Amaiera dauka*

*Beti existitu da  
eta betiko  
existituko da.*

*Amaigabea da*

*Planetak*      *Galaxiak*

*Izarrak*

*Big-Bang*      *Big-Crunch*

5. Idatzi ideiak, eta gogoan izan besteei adierazi behar dizkiezula; era ulergarrian, jakina! Plan hau erabil dezakezu azalpenak ematerakoan, baina zeure hitzak erabili behar dituzu.

# PLANA




**AGURTU:** Kaixo, lagunok. Aupa! Kaixo denoi. Iufala! Ongi etorri, espero dut zuen interesekoa izango dela.

**ADIERAZI GAIA ZEIN DEN ETA PLANA:** Gaurko gaia, ...ari buruz hitz egingo dizuet...


**UNIBERTSOA:** (Hitz honek esanahi ezberdinak izan ditzake) Espazioaz eta espazioko astroei buruz hitz egingo dut. Unibertsoaren sorrerari buruz, hain zuzen ere.

**3 TEORIA edo azalpen:** Oraindik ez dakigu oso ondo Unibertsoa nola sortu zen, nolakoa den, eta hiru azalpen ezberdin ematen dituzte:


**1.a: HASIERA IZAN ZUEN, ETA AMAIERA IZANGO DU.**



**2.a:** Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.



**3.a:** Betidanik existitu da, hots, **AMAIGABEA DA.** Ez zuen hasierarik izan, eta ez du amaierarik izango.



**Zeure iritzia:**

Nire ustez, nik uste dut, nik esango nuke, dakidanaren arabera...


**Bukaerako agurra:**

## 6. Ahozko azalpenak ematen trebatzen.

Azalpenak ematerakoan, lasai egon. Ideiak ondo ulertzen badituzu, ondo adieraziko dituzu. Planari jarraitu. Gogoan izan zeintzuk diren ideia nagusiak, eta joan banan bana adieraziz.

1. **AGURTU.**
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:
  - 1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.
  - 2.a: Hasiara izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.
  - 3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.

**Kaixo, lagunok:  
Ongi etorri. Espero dut  
zuen interesekoa  
izango dela. Niri asko  
interesatzen zait gai  
hau, jakin-min handia  
dut.**




1. AGURTU.
2. **IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.**
3. Hiru teoria edo hipotesi:
  - 1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.
  - 2.a: Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.
  - 3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.

**Unibertsoari buruz hitz egingo dizuet.**

**Gaurko gaia Unibertsoa da.**

**Dakizuenez, Unibertsoa esistitzen den guztia da: espazioa, izarrak, planetak... Kosmos izena ere ematen zaio.**





1. AGURTU.
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. **Hiru teoria edo hipotesi:**
  - 1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.
  - 2.a: Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.
  - 3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.

Unibertsoa edo kosmosa nolakoa den jakin nahi dugu, baina oraindik ez dugu lortu.

**Hiru ideia daude.** Hau da, **hiru azalpen ezberdin** ditugu. Ahaleginduko naiz hirurak ondo azaltzen.





1. AGURTU.
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:  
**1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.**  
**2.a:** Hasiara izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.  
**3.a:** Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.







1. AGURTU.
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:
  - 1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.
  - 2.a: **Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.**
  - 3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.




twinkl.com




1. **AGURTU.**
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:  
**1.a:** HASIERA ETA AMAIERA DITU.  
**2.a:** Hasiara izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.  
**3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.**
4. NIRE IRITZIA.
5. Amaierako agurra.



1. **AGURTU.**
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:  
**1.a:** HASIERA ETA AMAIERA DITU.  
**2.a:** Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz amaituko.  
**3.a:** Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. **NIRE IRITZIA.**
5. Amaierako agurra.



1. **AGURTU.**
2. IZENDATU GAIA ZEIN DEN ETA ADIERAZI  
PLANA: UNIBERTSOA.
3. Hiru teoria edo hipotesi:  
1.a: HASIERA ETA AMAIERA DITU.  
2.a: Hasiera izan zuen, baina ez da inoiz  
amaituko.  
3.a: Betidanik existitu da. AMAIGABEA DA.
4. NIRE IRITZIA.
5. **Amaierako agurra.**



## 7. Gaiari nola eutsi trebatzen.

Jarraian, hitz talde batzuk dauzkazu. Hitz talde bakoitzean, gaia zein den asmatu behar duzu. Baina, horretarako, hitz talde bakoitzean harira ez doan hitza zein den aurkitu behar duzu. Zeintzuk? Zergatik? Adibidez:

### GAIA

Merkuri o. <del>Termometroa.</del> Venus. Lurra. <del>Landarea.</del> Marte. Jupiter. Saturno. Urano. Neptuno. Pluton.	Planetak
Bizikleta, motozikleta, monopatina, autoa, trena.	
Sagua, monitorea, teklatua, gazta, entxufea.	
Atmosfera, itsaso, ibaiak, mendiak, basoa, eskua.	
Big-banga, galaxiak, materia, zabaldu, amalgabea, hasiera.	

## 8. Azalpena entzuten duenari, lagundu ulertzen:

Unibertso hitza edo kosmos hitza batzuentzat ulergaitza izan daiteke. Hori dela eta, aipatu eta gero azalpena ematen da, edo hitz ulergarriagoa aipatzen da. Adibidez:

- Unibertsoa, hau da, existitzen den guztia.
- Kosmosa, edo Unibertsoa...

Zeuk egin, lot ezazu hitz bakoitza bere birformulazioarekin edo azalpenarekin:

Galaxiak, alegia,	1	A	unibertsoko edozein objektu, forma zehatza duena.
Astroak, hau da,	2	B	izar talde erraldoia.
Big-banga, hots,	3	C	oraindik ziur ez dakigun azalpena edo teoria.
Hipotesia, edo,	4	D	unibertsoaren hasierako leherketa handia.
Izarra, hau da,	5	E	gure planetari egunez argia ematen dion izarra.
Eguzkia, hau da	6	F	Eguzkia bezalako astroak.

Orain, zeuk asmatu hitzen edo ideien birformulazioa:

- Amaigabea,




## 9. Kontuz irakurtzerakoan eta idazterakoan!

Hitz batzuk maiuskulaz idazten dira **esanahi berezia dutenean, izen bereziak direnean alegia, Eguzkia eta eguzkia** adibidez:

*Eguzkia* letra maiuskulaz idazten dugunean, egunez argia ematen digun gure izarrari egiten diogu erreferentzia. Bestalde, pertsona baten izena ere izan daiteke.

Baina, *eguzkia* minuskulaz agertzen denean, izan daiteke beste izar bat.

Hona hemen horrelako hitzak; ea bereizten dituzun:

	 Gure izarra.	Edozein izar.	<b>Pertsona baten izena.</b>		 Gure satelitea	<b>Beste planeta bateko satelite bat.</b>
<b>Eguzkitan</b> etzanda egotea arriskugarria izan daiteke.						
<b>Eguzkiari</b> begiratzea arriskugarria da.						
<b>Ilargik</b> jostailu bat utzi dit.						
Irakasleak <b>Eguzkiri</b> tirta bat jarri dio belaunean.						
Batzuek <b>Eguzkiari</b> Lorentzo deitzen diote.						
Unibertsoan <b>eguzki</b> asko daude.						
Astronautak <b>Ilargira</b> joan ziren.						
Neptunok <b>ilargi</b> asko ditu.						
<b>Eguzkian</b> ez dago bizitzerik.						

# **UNIBERTSOAREN SORRERA EGIPTOARREN, BABILONIARREN ETA INDIARREN ARABERA**

**LAMIA: (Offean) Ai, hau gaua! Ematen du ez dagoela izaki bizidunik.**

**Lamia itsas labarrean barrena dabil, eta paisaia plano subjektiboan ikusten da.**

**LAMIA: A? Non demontre ote dago mundu guztia?**

**LAMIA: Ematen du munduan bakarra naizela.**

**(Gelditu egin da, itsas labarraren ertzean. Amildegitik, itsasoa zerumugaraino ikusten da).**

**LAMIA: (Offean) (Hasperenka) A! Hau bakea! Zeinen ederra den! (Hasperen egin du berriro).**

**(Paisaiari behatzen ari da. Dena geldi-geldi dago).**

**LAMIA: (Offean) Ai, munduak hasieran honelakoxea izan behar zuen, lasai-lasaia.**

**LAMIA: (Offean) Ez haizerik, ez animaliarik, ez ezer! Hura bakea!**

**LAMIA: A! Badakit, jainkosarena egingo dut, eta mundua berriro eraikiko dut!**

**Zutitu egin da. Itsas labarraren ertzean dago, eta itsasoari hitz egiten hasi zaio.**

**LAMIA: Itsaso sakona! Itsaso zabala! Mugi zaitetz haizearen eraginez. Datorrela haizea eta harrotu ditzala zure urak!**

**(Itsasoak bare-bare jarraitzen du).**

**LAMIA: (Haserre) U? Itsasoko urak, harrotu zaitetzte! Getariako Marik agintzen dizue! Sor dadila haizea!**

**(Itsasoak bare-bare jarraitzen du).**



**MARI: (Oso haserre) Uuuu! Zer, ez didazue jaramonik egin behar? Ez dakizue nor naizen? (Garrasika) Itsasoko urok, harrotu zaitezte, Mariren haserrea piztu nahi ez baduzue!**

**(Trumoi-hotsa).**

**(Jainkoen ahotsak entzun dira offean, marmarka eta haserre).**

**JAINKOSA BAT: (Offean) E, aizu! Zu ez zara jainkosa! Ezin duzu horrelakorik egin...**

**JAINKOSA BAT: Jadanik sortua dago mundua, ea jabetzen zaren!**

**(Jainkoen barre-algarak beren artean).**

**JAINKOSA BAT: (Offean) Ja, ja, ja! Honek zer uste du! Horren erraza balitz, edonork egingo luke...**

**JAINKOSA BAT: (Offean) Ja, ja, ja! Harropuztu egin da!**

**JAINKOSA BAT: (Offean) Lamia ziztrin bat besterik ez zara! Aditu? Ja, ja, ja! Jainkosarena egin nahi ez du ba?**

**LAMIA: Eta zergatik ez, e?**

**JAINKOSA BAT: (Offean) Ba, zuk ez dakizulako nola sortzen den mundu berri bat!**

**LAMIA: A! Eta zuek bai? Tira, tira... Jmmm! (Haserre) Bai zera! Gauza batzuk ez dituzue oso ondo egin. Ez horixe!**

**LAMIA: (Haserreago) Izan ere, gauza batzuk erabat gaizki egin dituzue.**

**JAINKO BAT: (Offean) (Beste jainkoei) Hau lotsagabe galanta! Zer uste du? Kritikatzea erraza da! Nik ere aldatuko nituzke gauza batzuk, baina...!**

**BESTE JAINKO BAT: (Offean) Ez egin jaramonik; ez du ezer ulertzen, eta ez du estimatzen guk egindakoa. Doala pikutara!**

**JAINKOSA: (Offean) (Lamiari) Gauza bat esango dizut, jakin dezazun. Guk lan ona egin genuen, baina gizakiek hondatu egin dute!**

**MARI: Zuen erruagatik! Zergatik sortu zenituzten?**

**JAINKOSA: (Offean) (Beste jainkoei) O! Lamia honekin ez du merezi hitz egiten jarraitzea, neure onetik ateratzen nau! Banoa! Bestela...**

**LAMIA: (Harro eta dema egiten) Bestela, zer?**

**JAINKOSA: (Lamiari) (Offean) Egia esan beharko nizuke, eta ezingo zenuke eraman. Ergel hori! (Beste jainkoei) Hau oraindik ez da konturatu erabat birtuala dela! Haurren buruan baino ez dela existitzen!**

**LAMIA: (Erabat harrituta) E! Birtu... zer? Zer deitu didazu?**

**JAINKO BAT: (Offean) Ene, bada! Utz dezagun eztabaida hau! Hori ezin zaio esan!**

**JAINKOSA: (Offean) (Jainkoari) Ba, jakin dezala behingoz ez dela existitzen.**

**LAMIA: Nola ezetz?**

**JAINKO BAT: (Lamiari) (Offean) Ba, horixe! Ipuinetan bakarrik existitzen zarela!**

**LAMIA: (Harro eta begirunerik gabe) A... Tira! Ez etorri hona ergelkeriekin!**

**LAMIA: Agur! Zoazte pikutara!**

**LAMIA: (Bidean doala, marmarka bere artean) Baa, Um! Zer uste dute horiek! Harroputz halakoak! Ez dute kritika bat onartzen. (Gelditu egin da. Gora begiratu du, eta deiadarka hasi da) Ergelak halakoak! Harroputzak!**

**LAMIA: (Kobazuloan sartzen ari da, marmarka bere artean) Non dago? Ez naizela existitzen, ja!**

**Kobazuloaren hormetan arakatzen ari da zerbaiten bila. Aurkitu du.**

**LAMIA: Hemen dago! (Liburu bat da).**

**(Sutara hurbildu da. Astindu du, eta eseri egin da. Liburua zabaldu du, eta bilatzen hasi da).**

(Liburuaren azala ikusten da, eta liburuaren atzean Lamia. *Jainko eta Jainkosak* izenburua ikusten da).

**LAMIA:** (Biraoka, ikusteaz batera) Besteak baino gehiago direla uste dute. Harroputzak!

**LAMIA:** (Biraoka, ikusteaz batera) Harroputzak! Ipuinetakoa naizela! Eta zuek zer?

(Liburua bere eskuetan mugitzen hasi da, eta trumoi-hotsa entzun da. Ondoren, hots batzuk offean).

**RA:** (Offean) Nazkatuta nauka lamia horrek. Beraren aurrean agertuko naiz, eta erakutsiko dizkiot bereak eta bost!

(Jainkoen irudiak beren izenekin erakusten dira: Marduk, Brahma...).

**BRAHMA:** (Offean) Itxaron, ni ere zurekin noa!

(Trumoi handi bat entzun da, eta Lamiaren kobazuloan Marduk, Ra eta Brahma agertu dira. Eztandak dena hankaz gora jarri du. Liburua hondatu egin da).

(Lamia liburuaren azpian geratu da. Ra jainkoa hurbildu zaio, liburua altxatu du, eta Mari agertu da. Beldurtu egin da).

**RA:** Kaixo, Mari! Jakin ote daiteke zer gertatzen den gurekin?

**LAMIA:** Ezer ez! (Altxatu egin da, eta ingurura begiratzen ari da).

**LAMIA:** Eta zer nahi duzue?

**BRAHMA:** Geure boterea erakustera etorri gara. Harroputz hutsak ez garela ikus dezazun.

**LAMIA:** Eta nola frogatuko didazue?

**MARDUK:** Zer egin dugun kontatuko dizugu. Dena ez, baina egin dugun gauzarik handiena bai!

**LAMIA:** Zer da egin duzuen gauzarik handiena, jakin badaiteke?

**BRAHMA: Unibertsoa sortzea, nik sortu nuen!**

**RA: Ez, nik sortu nuen!**

**MARDUK: Hara besteak! Zuek jaio zinetenerako, nik dena egina neukan!**

**(Liburutik beste jainko batzuk sortu dira: Amateratsu eta Shang Di).**

**SHANG DI: Kaixo!**

**AMATERATSU: Kaixo!**

**MARDUK: Eta bi hauek zer demontre egiten dute hemen?**

**RA: Ez dakit! Zertara zatozte zuek?**

**SHANG DI: Guk ere zerbait egin dugu. E?**

**AMATERATSU: Nola zerbait? Den-dena!**

**LAMIA: Beno... hobe izango da txandaka kontatzea. Nork bere azalpena eman dezala. Ados?**

**MARDUK: (Besteekin batera) Nik hasi beharko nuke!**

**RA: (Besteekin batera) Ez, ni hasiko naiz.**

**BRAHMA: (Besteekin batera) Ondo da.**

**AMATERATSU: (Besteekin batera) Ados, ni konforme.**

**SHANG DI: (Besteekin batera) Konforme!**

**RA: Ni bigarrena.**

**BRAHMA: Ni hirugarrena.**

**AMATERATSU: (Shang Diri ) Gu azkenak.**

**SHANG DI: (Amateratsuri ) Gu azkenak.**

**(Denak suaren inguruan, Marduk hizketan ari dela).**

**(Mardukek esaten duena grafikoek adieraziko dute).**

**MARDUK: Nik egin nuena (Offean) (Grafikoak) *Enuma Elis* idazkian dago.**

**MARDUK: (Offean) Hasieran, kaosa besterik ez zen. Lurra, lainoa eta urak nahasian zeuden. Zeruaren eta lurraren mugak sortu ziren, bai, baina elkartuta zeuden: Anshar eta Kishar jainkoak ziren.**

**MARDUK: (Offean) Ti'ammak itsasoko jainkosa hil behar izan nuen, itsasoa lurretik bereiz zedin. Gero, bi zatitan banatu nuen, eta Lurra eta itsasoa ondo bereizita geratu ziren.**

**MARDUK: Ondoren, Eguzkia, Ilargia eta izarrak sortu eta zeruan jarri nituen.**

**MARDUK: (Offean) Eta horrela geratu zen.**

**(Grafikoak: Babiloniarren kosmogoniaren irudia).**

**MARDUK: (Offean) (Poltsa bat airez beteta) Behekoa lurra da, eta goikoa zerua eta ortzia. Goian eta behean, hasierako urak dituzue. Urak isurtzean, euria eta ibaiak sortzen dira.**

**MARI: Bai, oso ondo!**

**MARDUK: Hori izan da dena.**

**RA: Nire txanda da orduan. Ba, nire istorioa antzekoa da.**

**MARDUK: Kopiatu egin diguzue eta!**

**RA: Ez da egia, entzun ondo!**

**RA: Hasieran, (Grafikoak) kaosa zen. Ura eta lurra nahasian zeuden.**

**MARDUK: Ikusten? Nik esan dudana. Berdin-berdina! Ez du balio!**

**RA: Ez da berdina! Itxaron, eta utzi azaltzen! Ez da zure txanda!**

**RA: (Offean) (Grafikoak) Hasieran, ni bakarrik nintzen, eta airea, Chu, eta hezetasuna, Tefnut, sortu nituen.**

**RA: (Offean) (Grafikoak) Chuk eta Tefnutek Zerua, Nut, eta Lurra, Geb, sortu zituzten. Nut eta Geb elkarri lotuak zeuden...**

**MARDUK: Esan dizuedana, berdin-berdina da.**

**RA: Bai, antzekoa da, baina ez berbera. Eta utzi azaltzen!**

**RA: (Offean) (Grafikoak) Nut eta Geb elkarri lotuta zeuden, baina Chuk , aireak, banandu egin zituen, eta mundua bizitoki egokia bilakatu zen.**

**Begira, hori da Chu, eta irudi honetan agertzen dena, hain zuzen, lurra eta zerua banatzen ari zen unea da.**

**RA: (Marduki) Eta begira nola geratu zen. Gure ustez, honelakoxea zen mundua.**

**(Grafikoak).**

**RA: (Offean) Mundua kutxa bat da, eta Ur-Nes ibaiak inguratzen du. Nik, Eguzkiak, egunez zerua zeharkatzen nuen, eta gauez ibaia, neure argia mendien atzean utzita.**

**LAMIA: A, oso polita izan da kontatu duzuen guztia, baina ez da egia.**

**MARDUK: (Rarekin batera) Ezetz?**

**RA: (Mardukekin batera) Nola dakizu?**

**LAMIA: Nik baditut liburu batzuk, eta horiek ederki asko azaltzen dute nola sortu zen mundua!**

**BRAHMA: Jakina, nik esaten dudan modukoa da, baina ez didazue azaltzen utzi!**

**LAMIA: Ondo da. Azaldu, azaldu, eta gero esango dizuet benetan nola sortu zen. Behinik behin, ez da zuek esaten duzuen moduan, ez horixe!**

**BRAHMA: Hasieran, ez zegoen ezer. Beno, existitzen zen gauza bakarra Ezereza zen, Iluntasuna eta Kaosa. Baina, egun batean, Ezereza bere buruaz jabetu zen, existitzen zela konturatu zen.**

**BRAHMA: (Offean) (Grafikoak) Bazegoen aintzira handi bat ere, eta, aintzira horretan, Ananta suge erraldoiaren eraztunetan lotan zegoen Visnu jainkosa. Halako batean, Visnuri lore bat erori zitzaion zilborretik, eta handik sortu nintzen ni!**

**BRAHMA: Lehendabizi, argia eta iluntasuna elkarrengandik banatu nituen. Eta, gero, unibertsoa sortu nuen.**

**(Liburu bat atera du. Liburuaren izenburua ikusi da: *Veda*).**

**(Liburuaren grafikoak).**

**BRAHMA: (Offean) Begira ezazue, honelakoxea egin nuen. Zerua, Aireak eta Lurra.**

**Lurrean, Sumeru mendia sortu nuen, eta haren hegoaldean kokatu nuen India. Hala ura eta itzala izango zituelako. Itsasoa inguruan jarri nuen, arrainak ere izan zituzaten. Zeruan, berriz, zazpi maila ezberdin daude. Izan ere, ni zazpigarren mailan bizi naiz. Infernua, beste zazpi maila daude! Begira, liburu honetan oso ondo azalduta dago.**

**Ni honako hau naiz (Galtzarbe baten gainean doan jainko gorri bat seinalatu du).**

**BRAHMA:** (Offean) Begira ezazue, arrautza bat dut eskuan. Horregatik, batzuek diote arrautza batetik sortu nuela unibertsoa.

(Liburua itxi egin du, eta izenburua berriro agertu da).

**NESKA:** O! Oso istorio politak kontatu dituzue.

**BESTE JAINKOA:** E! Oraindik nirea falta da!

**BESTE JAINKOA:** Nik ere neurea kontatu nahi dut! E?

**ODIN:** Eta nik!

**LAMIA:** Bai, baina beste une batean. Orain, zerbait jango dugu. Ongi?

**BRAHMA:** Ederki. Lagunduko dizut.

**LAMIA:** Hori espero dut. Hainbeste jainkoren artean, baten batek sorraraziko ahal du nahi dugun adina!

**BRAHMA:** Bai horixe!

**LAMIA:** Nik, edateko, Egiptoko garagardo beroa nahi dut. Entzun dut oso ondo prestatzen dutela.

**RA:** Hori egina dago! (Kaiku batzuk garagardo agertu dira).

**LAMIA:** Eta Indiako barazkiak kurriarekin!

**BRAHMA:** Zure esanetara! (Barazki erreak agertu dira eltze batean).

**LAMIA:** Mesopotamiako ogia ere nahi dut.

**MARDUK:** Hori baino ez bada! Hor duzu!

**BESTE JAINKOA:** Guk ez dizuegu ezer emango.

**BESTE JAINKOSA:** Hori! Geure kondaira kontatu arte, ez dago oparirik zuentzat.

(Gazta handi bat dakarrela itzuli da).

**LAMIA:** Jainko maiteok, nik gazta ekarri dut.

**BRAHMA:** (Oso haserre) Utikan, nik ezin dut hori jan! Ez al dakizu behia sakratua dela guretzat? (Trumoi-hotsen artean).

(Lamia zer esan ez dakiela geratu da. Zerbait esateko ireki du ahoa, baina Brahma gehiago haserretu da).

**BRAHMA:** Nola ausartzen zara horrela iraintzera ni, munduaren sortzailea naizen hau?

**MARDUK:** Jmmm! Mundua sortuko zenuen, bai, baina ez dakizu zure munduaren txoko honetan gaztarik hoberena ardi-gazta dela?

(Mardukek gazta hartu du, eta usaindu ere egin du).

**MARDUK:** Eta gazta hau onenatarikoa dugu, bai alajaina!

(Brahma, zer esan ez dakiela, geldirik. Besteak eseri egi dira, jateko asmoz).

**RA:** Kar, kar, kar! Jainkook ere hanka sartzen dugu, inoiz edo behin.

(Brahma eseri egin da, eta ez du ezer esan; lotsaturik dago).

**ODIN ETA BESTE JAINKOAK:** Bukatzen duzuenean, esan, eta kontatuko dizuegu geurea.

**RA:** Zatozte, zatozte, hurbil zaitetze, eta, jan bitartean, zeuen istorioa kontatuko diguzue.

Beste jainkoak eseri egin dira. Lamia, berriz, altxatu egin da. Kamerari begiratu dio.

**LAMIA:** Agur, laster arte. Hau ez da hemen amaitzen. Beste jainkoen istorioak ezagutu behar ditugu, baina hori beste egun batean izango da.

**LAMIA:** Agur!

Mito guztiek bezalaxe, babiloniarrek naturako gertakariak hartu zituzten oinarritzat, munduaren edo unibertsoaren sorrera azaltzeko. Mesopotamia Tigris eta Eufrates ibaien artean dago, eta bi ibai horiek Pertiako Golkoan itsasoratzen dira. Hantxe uzte dute beren sedimentua. Ibaiek daramatzaten material horiek guztiak metatuz joaten dira, eta, astiro-astiro, lekua jaten diote itsasoari. Horretaz ohartuta, ziur asko, lehorra hasierako uretatik sortu zen babiloniarrentzat. Egiptoarrentzat, berriz, unibertsoa kutxa luzanga bat zen, beren herrialdea bezalaxe, iparretik hegora hedatzen zena. Ur-nes ibaiak lurra inguratzen zuen, eta haren hegoaldeko ibaiadarra zuen Nilo ibaia. Egunez, Eguzkiak ekialdetik mendebalderako ibilbidea egiten zuen zeruan. Gauez, ostera, Ur-nes ibaian zehar nabigatzen zuen itsasontzira igo, eta iparraldetik inguratzen zuen Lurra. Haren argia mendi garaien atzean ezkututzen zen, gizakiek ikus ez zezaten.



## **BIBLIOGRAFIA.**

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

# **Egileak**

## **GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

**SOINU-BANDA:**

Inhar Val

**EDIZIOA:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodriguez

# **K2000 S.A.**

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

**EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailaren  
egokitasun-aitormena du:  
2008/05/14**

**LEGEZKO GORDAILUA: SS-1495/05**

**Copyright 2007:**

**L.C. PRODUKTOREA**